



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Aitatasunerako trantzisioa
igarotze erritu bezala: Lehen
pertsonan egindako ikerketa kasu
bat**

Irati Lafragua Salazar

137-144 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.02.17>

ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



Aitatasunerako trantsizioa igarotze erritu bezala: Lehen pertsonan egindako ikerketa kasu bat

Lafragua Salazar, I.

Gizarte zientziak eta zuzenbidea. Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
irati.lafragua@ehu.eus

Laburpena

Artikulu honek aita bilakatzean gertatzen diren aldaketa sakonak aztertzea du helburu, aitatasuna estatus aldaketa nabarienetakoa izanda pertsona heldu baten bizitzan. Baina nola heltzen da estatus horretara? Zeintzuk dira prozesuan ematen diren faseak? Ikerketa hau aita bilakatu berri den gizon bati grabatutako ikus-entzunezko materialean dago oinarritua. Umea jaio eta hilabete bat lehenagotik eta jaio ostean lau hilabetez jarraian dago grabatuta, berak jasandako aldaketa fisiko –eta psikologikoak— azaleratuz. Aitatasunaren analisi bat da, non aita bihurtzea bera igarotze erritu batekin alderatzen den, estatus aldaketa hori zein punturaino gorpuzturatutako ezagutzaren mendekoa den aztertuz. Aldaketa hori gertatzearen, aitek beti ez daukaten denbora eta jaioberriarekiko inplikazioa ezinbestekoak direla erakusten digun bitartean.

Hitz gakoak: Aitatasuna, maskulinitatea, gorpuztaraztea, antropologia bisuala.

Abstract

This article explores the complex transformations involved in first time fatherhood, when adult men undergo one of the most important status changes in their lives. How is this status reached? What are the stages of this transition? This study is primarily based on audiovisual material of a newborn father, collected from one month before the birth of his first child through four months after. This footage allows me to examine the physical –and psychological—evolution of this man. This is an analysis of fathering and masculinity that explores the degree to which this status change is dependent on embodied knowledge, and how this requires an amount of time and practice that fathers do not always experience. This process will be analyzed in this article as a “modern” rite of passage.

Keywords: Fathering, masculinity, embodiment, visual anthropology

1. Sarrera eta motibazioa

Aitatasunaren inguruan (baita amatasunaren inguruan ere) zerbait aldatzen ari dela agerikoa da. Estatu Espainiarrean aitatasun baimenen azken urteetako gorakadak horrela erakusten digu (ikusi 1. irudia). 2021. urteko urtarrilaren 1etik bai aitek eta bai amek 16 asteko baimena dute bermatua ume baten jaiotza (edota adopzioa) eta gero, eta baimen hori ez da transferigarria izango. Argi dago aldaketa abian dela eta baita horrek gizartean eta politikan sortu dituen eztabaidak eta hausnarketak denbora luzez jarraituko dutela gure artean.

1. Irudia: 2006tik 2021ra aitatasun baimenaren eboluzioa asteetan



Beste herrialde batzuetara begiratzuz Suedia izan zen 1974an aitentzat baimen ordaindu bat hartzeko eskubidea onartu zuen lehengo herrialdea genero berdintasuna helburutzat zutela amei lana emanez eta aitei “haurdunaldiak” (Johansson eta Klinth, 2008). Hala ere, oso gutxi ziren baimen hori erabiltzen zuten gizonak, eta horri erantzuna eman nahian 1994an Norvegia izan zen aitaren kuota ezartzen zuen lehengo herrialdea. Kuota hori lau astetako izan zen hasieran, eta aitak hartu ezean galdu egiten zen. Horrek gutxika bere fruituak eman zituen eta aita gehienek bere kuota erabiltzen hasi ziren —gaur egun 15 astekoa dena—. Norvegiako kasuan, amek ere bere kuota propioa daukate, kasu honetan 18 astekoa dena, 3 aste medikuek ezarritako jaiotze data baino lehenago eta 15 aste ondoren. Horrez gain, ordaindutako 16 aste gehiagoko baimena dago bien artean nahi bezala banatzeko, eta horri genero gabeko kuota deritzote. Hala ere, oraindik aiten %16ak bakarrik hartzen du partekatutako kuota horren zati bat (Naz, 2012), nahiz eta horrela deitua izan, oraindik gizartean ulertzen baita amari dagokiola erabakitzea baimen hori nola hartu (Eerola, 2014) eta orokorrean emakumezkoak dira genero gabeko kuota horren parterik handiena hartzen dutenak.

Bi faktore batu ziren ikerketa hau egiteko. Lehenengoa, ni neu nire lehengo haurdunaldian nengoen, eta amatasunari buruzko liburuak eta artikuluak bilatzen nituen etengabe. Batzuetan, nire bikotekidearekin irakurtzen nituen eta beti aitaren paperaren inguruko informazioa botatzen genuen faltan, bere eginkizuna amaren laguntzaile izatera murrizten baitzuten liburu gehienek. Artikulu akademikoak bilatzerakoan, alde psikologikotik, edo medikuntzaren alorretik, aitaren faltak zituen ondorioak garatzen zituzten artikuluak aurkitu nituen batik bat, baina gauza gutxi bikote baten baitan aitatasuna biziko zuten gizonei buruz. Salbuespenak baziren, baina ez gehiegi, eta hor ikerketa hutsune bat somatu nuen. Momentu horretan Norvegiar bizi eta ikasten ari nintzen nire bikoteak 7 hilabeteko baimena edukiko zuen, eta zaintzetan rol garrantzitsu bat hartu beharra zeukan ni egiten ari nintzen antropologia bisualari buruzko ikasketekin jarraitzeko asmoa baineukan. Horrela, bi gauzak batu eta bere partehartzearekin hemen aurkeztuko dudana lana egitea planteatu nuen. Helburua ez zen bakarrik zerbait gehitzea aitatasunaren inguruko bibliografiara, baizik eta zerbait berria eskaintzea. Momentu horretan aurkitu nituen ikerketa gehienak elkarrizketetan eta galdetegietan zeuden oinarrituak, eta hauek metodo baliagarriak izanda ere, aitatasunaren prozesuan sentimenduak eta eraldaketa fisikoa atzematea ere garrantzizkoa zela pentsatu nuen, eta horretarako, ikerketa prozedura egokiak garatu beharra zegoela iruditu zitzaidan. Esperientziatik hurbilago dagoen jakintza bat irudikatzea hartu nuen helburutzat “sentsoriala eta immateriala den giza esperientziaren natura” jasotzea alegia (Pink 2007:22) Horregatik material audiobisualaz baliatzea egokia izango zela erabaki nuen eta, horrela, kamera tresna nagusi bezala erabiltzea erabaki nuen.

2. Arloko egoera

Nahiz eta aiten esperientzia eta eraldaketa ulertzeko interesa geroz eta handiagoa izan, bai arlo sozialean, bai arlo akademikoan, gai honi buruzko ikerketa-bolumena oraindik ere txikia da ama diren emakumeen esperientzien inguruko ikerketekin alderatuta (Halle et al., 2008: 58). Aita hornitzaile absentearen figura gero eta indar gutxiago duen aitatasun eredua da mende baldeko gizarteetan (Bar-On eta Scharf, 2016; Brandth eta Kvande, 1998; Wall eta Arnold, 2007). Zentzu horretan, badira aiten inplikazioan aitatasun baimenaren erabilera eta eragina aztertzen duten ikerketak (Naz, 2012; Meil et al. 2017). Aipatutako ikerketa horiek aitatasun baimen transferiezinak eta denbora horren zati bat behintzat alaba-semeekin bakarrik egoteak faktore erabakigarriak direla azpimarratzen dute, erantzukidetasunarekin konpromisu handiagoa duen aitaren identitate mota bat garatzeko. Zentzu horretan, ikerketa ezberdinetan parte hartzen duten gizonezko gehienek umearekin bakarrik dauden denbora hori ezinbestekoa bezala deskribatzen dute, hura baita beraiek ardura bere gain hartzen duten momentua. Brand and Kvandek (2014) Norvegiar egindako ikerketa batean aitatasun eta amatasun baimena beren bikotekideekin aldi berean erabiltzen zuten gizon batzuek “asteburuan egotea” bezala deskribatzen zuten esperientzia (2014:135). Aipatutako ikerketek gain, badira zaintzale nagusi bezala aitaren rola aztertzen dituztenak ere (Doucet, 2004, 2006, 2009; Rochlen et al. 2010) eta gizon hauek beraien egunerokotasunean aurre egin behar dituzten erronkak, zalantzak, zailtasunak eta baita poztasunak ere ikertzen dituztenak.

Antropologiak gurasoen rolekiko eta kultura desberdinen aniztasunarekiko interes nabarmena erakutsi du betidanik (Hewlett, 1991; Malinowski, 1975; Mead, 1994). Ikuspegi eta ondorioetan desberdintasun nabarmenak izan arren, Barry Hewlett edo Margaret Mead bera bezalako antropologoen landa-lanak erakutsi ziguten gurasoen beren seme-alabekin loturak sor ditzaketela afektibitatean eta zaintzan parte hartzerakoan (Imaz, 2007: 72). Malinowskik, ezaugarri horiek Ozeaniako Trobriand uharteetako aitengan ere ikusi zituen, zaintzan inbertitutako denboraren arabera garatzen direla lotura

mota hauek ondorioztatuz. Ahaidetasun erlazioez gain, generoa izan da antropologiaren beste kezka nagusietako bat eta puntu klabe bat ere ikerketa honetan. Zentzu horretan gizon erasotzailea vs. emakume zaintzailea instintu naturala baino gure gorputzak ikasitako rola dira, munduan nola sozializatu garenaren (edota munduak nola sozializatu gaituenaren) arabera aldatzen direnak (Silva, 2015). Judith Butlerrek ere, gauza berdina beste modu batean jartzen du “It is our genders that we become” (1987:131) esaten duenean, generoak determinatzen duela gure portaera adieraziz eta ez alderantziz.

Dena den, generoen arabera banaketa hori gainditzea eta berdintasuna bermatzen duen eredu batetara igarotzea non eta aitek eta amek paper berdina betetzen duten, mota desberdinetako erresistentziak aurkitzen ditu bidetik. Alde batetik, aita haurdunaldian, erditzean eta zaintzetan presente egotea espero da, baina, bestetik, ez da errazten bere trantsizioarekin lotutako emozioen eta beharren adierazpena (Shapiro, 1987). Egun Covid19aren krisia dela eta aitei ematen zaien garrantzia txikiaren adibideak ageriak egin dira. Kasu gehienetan ez diete utzi haurdunaldiarekin zerikusia duten frogetara sartzen, ekografiak, erditze aurreko klaseak, medikuaren kontsultak, etab. Horrez gain, badira kasuak non erditzean egoteko baimena ere ukatu zaien, aita bihurtuko den gizon batentzat esperientzia horren balioa eta garrantzia ezeztatuz.

Gurasoen erantzunkidetasunerako eredua aldatzea ez da erreza eta aldaketa hori zailtzen duten funtsezko hiru faktore identifikatu dira (behintzat) maskulinitatearen aldetik. Lehenengoa maskulinitate eredu hegemonikoak gizonetzkoen planteatzen dien gatazka da, non zaintzak eta emozionaltasuna ez diren gizonetzkoen arketipoaren zati bat. Gizonetzkoen eta emakumezkoen generoak oposizioan eraiki dira neurri handi batean, eta emakumei egozten zaizkie tradizionalki zaintzaile eta sentiberak izatearen ezaugarriak (Draper, 2003; Magaraggia, 2013; Thomas, 1993). Bigarren faktorea, gizonek beraien behar emozionalak eta beraien eraldaketari buruz duten ikuspegi fisiko zein soziala adierazteko sentitzen duten legimitate eza da. Horrek esan nahi du, gizonetzkoek askotan sentimendu kontrajarriak bizi dituztela, presente egon nahian baina, aldi berean, bigarren mailakoak edota baztertuak sentituz haurdunaldia, jaiotza eta umeen zaintzarekin zerikusia duten gaien inguruan (Miller, 2010). Hirugarren faktorea aitek eskuragarri dituzten eredu alternatiboen falta da (del Valle et al., 2002): aitatasuna eboluzionatzen duen kontzeptua izanik, beraien aitek ez baitira eredu bat beraientzat (Daly, 1993).

2.1. Ikerketaren helburua eta metodologia

Ikerketa honen helburua gizonak aita bilakatzen direnean jasandako transformazioa dokumentatzea izan da, eta beraien eraldatzea amatasunak dakarren eraldaketarekin parekatu daitekeen ikustea, non haurdunaldiak, erditzeak eta edoskitzeak emakumearen gorputzari eragiten dion aldaketa fisikoak honen gorputzutako izaera agerian uzten duten. Horretarako auto-etnografia bat egitea erabaki nuen, eta nire bikotekidearen baimena eta partehartze aktiboarekin, bera aitaren rolean nola haziko zen ikertzea eta grabatzea izan zen proiektu honen oinarria. Horretarako, ikerketa hasi baino lehen planteatu nituen ikerketa galdera nagusiak hurrengoak izan ziren:

1- Nola haziko da nire informatzailea aita rolean? Agerikoak izango dira aldaketak nolabait bere gorputzean?

2- Zerk baldintzatzen du aldaketa horiek (egotekotan) agerikoagoak edo ezkutuagoak izatea?

Galdera hauen erantzuna bilatu nahian ikerketak narrazio intimoa eta hurbilekoa izatea garrantzitsua iruditu zitzaidan. Aukeratutako metodologiak beste modu batean heltzerik ez dauden egoerak bizitzea ahalbidetu zuen, eta horri esker partehartzailearekin izandako elkarrizketak eta momentu pertsonalak oso emankorrak eta intimoak izatea lortu nuen, kameraren presentzia eta —ageriko arrazoiengatik— nirea intrusiboegiak izatea saihestuz. Zentzu horretan, bai proiektuan zehar eta baita testu honetan zehar, aukeratutako metodologia balioan jarri eta azaltzea izan da elementu garrantzitsuenetako bat.

Ikerketa honetan partehartzailearen obserbazioa izan da metodologia nagusia. Horretarako, ikerketan parte hartu duen aitaren jarraipena egin nuen kamera batekin bost hilabetez: aita bilakatu baino hilabete bat lehenagotik, jaioberriak lau hilabete izan zituen arte. Jarraipen hori arlo pribatuan (etxean) eta baita publikoan (kalean, hegazkinean, hondartzan, lagunekin, etab.) egin zen. Lehengo bi hilabeteak Norvegian, eta azkeneko hirurak Euskal Herrian. Horrez gain, honako hauek ere lana zehazten eta forma ematen lagundu zidaten:

- Partehartzaile nagusiarekin *hiru* elkarrizketa sakon.
- Duela gutxi aita izandako beste gizonekin elkarrizketak. Guztira *bi*, bat Norvegian eta bat Euskal Herrian.

- Foku taldeak. Guztira *bi*, bat Norwegian eta bat Euskal Herrian, 3 partehartzaileekin bakoitza (denak aitak, edota aita izango zirenak laster).
- Generazio arteko aldaketak sumatzeko, *bi* elkarrizketa: bat Gasteizko 65 urteko gizon batekin, eta beste bat Xixoneko bi gizonekin 66 eta 37 urtekoak (denak partehartzailearen familiakoak zirenak)
- Bi emaginei elkarrizketa bana, bat Norwegian eta bat Euskal Herrian.

Ikerketa hau ulertzeko funtsezkoak diren bi puntu aipatu beharra ikusten dut jarraitu aurretik: antropologia bisuala eta auto-etnografia. Antropologia bisualak datuak jasotzeko beste modu bat planteatzen du irudietan oinarrituta dagoena. Kasu honetan, lan honen funtsa gorpuztaraztean egonda, ikerketa hau bisuala izateak gizonezko batek aita bilakatzean pairatzen dituen aldaketa psikologikoak, eta batez ere fisikoak ulertarazteko, idatzizko testu bat baino aukera gehiago eskainiko zituela iruditu zitzaidan. MacDougallen hitzetan gaur egungo antropologiak emozioekin eta zentzuekin, generoarekin eta gorputzarekin konektatutako gaiekiko interesa hartzen ari da bere gain (1998), eta mota horretako gauzen jakintzak “ezagutza zuzena” eskatzen du, hau da, nolabait ikusi eta bizitzearen beharra. Hori gogoan izanda, eskuko kamera batekin parte hartzaile nagusiaren behaketa funtsezko tresna izan da ikerketa honetan, helburu bikoitzarekin gainera: alde batetik, ordu erdi irauten duen film bat editatzeko (*ikusi 7. Oharrak*), baina beste aldetik, grabatutako ordu guzti horiek landa lanaren eguneroko bezala funtzionatu dutelako.

Bestalde, auto-etnografiaren kontzeptua ere aipatu beharra daukat metodologiaren atal honetan. Antropologia norberaren kultura propioan egitea gauza onartua bada egun, auto-etnografiarekin bada oraindik nolabaiteko eztabaida. Dena den, badira auto-etnografian eta kasu ikerketetan, ahots indibidualak ahalduzko gaitasuna ikusten dutenak (Abu-Lughod, 1991). Kasu ikerketekin taldea homogeneizatea saihesten da, eta, horrez gain, kasu bakoitzaren berezitasunak azpimarratzeko, talde baten berdintasunak ere onartzeko gonbidapena luzatzen digu (Okeley, 1992:7). Beste batzuen artean, Esteban (2004) bere gorputzaren baitan egindako antropologia ikerketak bidea zabaltzen du ikerketa mota hauek legitimatzeko. Berak esaten duen moduan, bakoitzaren esperientzia estrategia paregabea da beste modu batean eskuratzeko izango litzatekeen informazioa eskuratzeko. Aitatasunaren eta amatasunaren esperientzia hain pertsonala eta intimoa izanda, auto-etnografiak eta kasu ikerketak, elkarrizketak edota galdetegiak baino hurbilagoko informazioa eskuratzeko aukera ematen digute, kasu honetan bezala.

3. Ikerketaren muina

Gizonak aita bilakatzearen prozesuari garrantzia ematea izan da ikerketa honen helburuetako bat hasieratik, eta jasotako datuen arabera behintzat, aldaketa hau fisikoa ere badela aldarrikatzeko tokian nagoela esango nuke. Aitek zaintzetan denbora inbertituz gero beraien gorputzarekiko eta mugimenduekiko harremanean ere aldaketak izango dituzte —Mauss-ek, (1991), “gorputzeko teknikak” deitzen dituenak — hau da: ohiko mugimenduak eta jarrerak berriro kalibratu behar dira eta mugimendu berriak ikasi umearen presentziari egokitzeko. Gizonezkoak gehienetan ume txikiekiko trebetasun gutxi izateko gizarteratu dira, bai psikologikoki —emozioak azaleratzea ez da maskulinitate hegemonikoaren ezaugarri bat—baina baita fisikoki — ume bat eskuetan hartzeko gai ez direla sentituz. Baina zaintzetan denbora inbertituz gero aldaketa ageriak ikusiko dira beraien gorputzetan eta hau mugitzeko eran.

Atal honetan ikerketan aurkitutako datu eta gertakari interesgarrienak azaldu eta hausnartuko ditut, eta horretarako, behin elkarrizketa, irudi, eztabaida talde eta grabatutako materiala aztertu eta gero, aita bilakatzearen prozesua iragate-ohikune batekin alderatzea oso komenigarria eta argigarria dela iruditu zait. “Rite de passage” Vann Gennep 1909an lehenengo aldiz erabilitako termino da, pertsona batek talde sozial bat utzi eta beste batean sartu dela irudikatzen trantsizio zeremoniei erreferentzia eginez. Trantsizio horretan hiru fase identifikatzen ditu berak (Van Gennep, 1960): *Alderatzea*, *Trantsizioa* edo *Limena*, eta *Barneratzea*. Vann Gennepen teoria malgutasunez aplikatuz gero, egunerokotasunean presente dauden erritualak aztertzeko tresna egokia izan daiteke (Seremetakis, 1991). Kasu honetan aitatasuna etengabea aldaketan dagoen prozesu bat izanik, lehen aipatutako faseak ez dira, ez hain zehatzak, ezta berdinak gizon bakoitzarentzat. Nire datuetan oinarrituta igarotze errituaren etapa bakoitzarekiko esanguratsuak iruditzen zaizkidan hiru momentu aztertuko ditut eta baita une horretan aitaren gorputzak igarotzen zuen unea aztertuko dut: haurdunaldia alderatze fasearen adibide gisa, erditzea eta lehenengo asteak trantsizio edo limena bezala, eta lehenengo hilabetea igaro eta gero barneratzea azaltzeko.

3.1. Haurdunaldia eta Alderatzea

Haurdun dagoen emakume baten irudiak kontzeptu oso argi bat dakarkigu burura: amatasuna. Berak ez du ezer demostratu behar, bere estatusa agerikoa baita. Ez da antzekorik gertatzen gizonezkoekin, eta hori da orokorrean beraien haurdunaldiko esperientzia: hor presente egoteko esfortzu kontziente bat eginez, baina aldi berean, eta eremu ezberdinetan, etengabe baztertuak sentituz, beraien bizipena ez baita fisikoa. Hori izan daiteke gizon gehienek ekografia haurdunaldiko momenturik hunkigarrienetakoa bezala deskribatzeko arrazoia, hori bezalako gorpuztutako uneak non aitek eta amek berdina ikusten duten oso esanguratsuak baitira beraien trantsizioan. Nire partehartzailearen kasuan ere, hori izan zen lehengo momentu hunkigarrienetakoa. Nahiz eta ni jadanik umea sentitzen nuela esaten banion ere (Norwegian ekografia bakarra egiten da 20 asteetan), bere esperientzia fisikotik hain urrun zegoen bizipen bat izanik, emaginak “*hemen ez dago ezer*” esatearen beldur zen. Horregatik, behingoz bihotz taupada batzuk entzutea eta nolabait “zerbait” dagoela ikustea garrantzi handiko una izaten da aitatasunerako bidean.

Esanguratsua den beste xehetasun bat elkarrizketa batean egin zen agerikoa. Elkarrizketa horretan, eta orokorrean jendearekin hitz egiterako orduan, batzuetan “haurdun gaude” erabiltzen zuen, eta beste batzuetan “haurdun zaude”. Bietako bat ere ez zion eroso sentiarazten, eta biak zalantzak planteatzen zizkieten. Horri buruz gehiago sakondu nahian, egun batzuk lehenago ateratako haurdunaldiko argazki batzuk ikusten genituen bitartean, argazki horiek ikustean nola sentitzen zen galdetu nion. Argazki horietan batez ere ni agertzen nintzen, baina batzuetan bera ere bai:

Depende nola begiratzen duzun, zentzu batean aitarekin ateratzen diren argazkiak pixka bat sexistak iruditzen zaizkit, gizonezko bat zara eta beti eduki behar duzu rol bat... klaro badaukazula rol bat, aita zara, baina haurdunaldiko argazkiak ateratzen dituzunean protagonista emakumearen gorputza izan beharko luke.

Bi adibide horietan agerikoa da haurdunaldia zer izan zen berarentzat: beti bere burua inplikatu nahian, baina aldi berean eskubiderik ez zeukala sentituz. Eztabaida taldeetan etengabe ateratzen zen gai bat izan zen hau, gizon askok partekatzen duten bizipen bat dela baieztatuz. Kasu honetan, eztabaida taldeetan beraien bizipenarekiko barneko gatazkaz gain, osasun profesionalen aldetik ere baztertuak sentitzen zirela maiz atera zen. Talde horietan jorratutako gaien artean: emaginak beraiei behin ere ez zuzentzea, prestaketa klaseetan parte hartu ezin izatea, edota lanean ekografia eta beste frogetara joateko baimenak ez lortzeko aukera izatea izan ziren. Bere aldetik, elkarrizketatutako emaginek ere onartu zuten esfortzu handiagoa egin beharko luketela aitari ere zuzentzeko kontsulta eta ikastaroetan, hutsune hori existitzen dela onartuz.

Nire ikerketan parte hartu duten gizonen artean, behintzat, haurdunaldian beraien gorputzetan aldaketarik sumatu ez dutela esan daiteke, eta beraien bizitzek “normaltasunez” aurre egiteko aukera izan dutela. Hala ere, une puntual batzuetan umearekin konexioa bilatzen zuten triparen bitartez —hitz eginez, laztanduz, etab.— edo medikuntzak eskaintzen dizkigun aukeren bitartez —bihotza entzun, ekografia, prestaketa klaseak, etab.— haurdunaldiaren parte zirela ziurtatzeko. Hala ere, momentu edo esperientzia horiek ere beste pertsona baten gorputzaren bitartez bizi behar dituzten esperientziak izanda ez dute haurdunaldia berea bezala sentitu. Puntu honetan interesgarria da Couvade eta Couvade sindromea aipatzea. Alde batetik medikuntzan aipatzen den trastorno bat da, non eta gizonezkoek ere beraien gorputzetan haurdunaldiaren sintomak jasaten dituzten, goragaleak edo pisua hartzea bezalakoak. Ikerketa batzuek honen intzidentzia %11 baino gehiagokoa dela baieztatzen dute (Brennan et al. 2007), nahiz eta gizartean ez oso ezaguna izan. Bestalde, antropologian ere garrantzitsua den termino bat da hau, kultura batzuetan, eta batez ere jaiotzaren momentuan aitek egien duten antzezpena izendatzeko.

3.2. Erditzea, lehengo egunak eta Fase Liminala

Fase hau zaurgarritasun handiagatik bereizten da. Fase honetan oraindik ezaren parte ez izatearen sentsazioa oso agerikoa, umea jaiotzen ari da, baina zu *bazara* aita? Gizon batzuek “shock” bat bezala deskribatzen dute erditzea (Deave eta Johnson 2008), nire partehartzailearen kasuan “*katartikoa*” bezala deskribatu zuen. Momentu horretan umea ideia bat izatetik zerbait fisikoa izatera pasatzen da eta bere kasuan umea jaio eta ordu pare bat beranduago berarentzat esperientzia oso gogorra izan zela esan zuen. Zergatik galdetu nionean zera erantzun zuen:

Bueno, ez daukat eskubidea hori esateko, niri ez dit minik egin, baina zu horrela ikustea gogorra izan da.

Honek bi gauza erakusten dizkigu. Alde batetik, aitek ere prestakuntza behar dutela, erditzearen una ez baita erreza izango beraientzat ezta. Bestetik, ez direla legitimatuak sentitzen beraien esperientziaz

eta sentimenduetaz hitz egitera, beraien esperientzia beti gutxiagokoa bezala antzematen dutelako –ez hain bortitza, ez hain erreala, ez hain zuzena.

Fase hau, gainera, ez da erditzearekin bukatzen baizik eta prozesu luzeago baten ostean. Horregatik lehengo egunak/asteak oso garrantzitsuak direla deritzot fase liminal hau gainditzeko. Horretarako jaio berriarekin denbora eta esperientzia ezinbestekoak dira. Esperientziaz hitz egiten dudanean zaintzek inplikatzan duten alderdi guztiei buruz ari naiz, pardelak aldatu, umea lokartu, bainatu, lasaitu etab. Fase honetako arazoetako bat izaten da aitek ama hautematen dutela guraso garrantzitsuena bezala (Fägerskiöld, 2008), nahiz eta biak lehenengo aldiko gurasoak izan. Gizon batzuek (gehienak nire ikerketan) haurdunaldiaren alde fisikoari egozten diote beraiek indartsuagoa bezala sumatzen duten ama eta umearen arteko erlazioa beraiek ezin errepikatzea. Edoskitzearekiko harremana ere nahiko korapilotsua izaten da hasieran, eta batzuentzat atzera pauso bat emateko arrazoi nabariena izan daiteke (Magaraggia, 2013). Nire partehartzailearen kasuan, umearen negarra bularrarekin zein azkar lasaitzen zen ikusteak frustrazio iturri izan zen askotan hasieran. Berak umea berarekin horrela lasaitzea nahi zuen, biok paper berdina jokatzeko genuelako helburu, eta hori ez zela gertatzen ikusteak negar malko batzuk ere ekarri zizkion. Frustrazio momentu horietako bat eta gero nola zegoen galdetu nion:

Ondo nago, baina oraindik sentitzen dut ordezkagarria naizela, zuk nik egin ahal ditudan gauza guztiak egin ahal dituzu, baina nik zuk egiten dituzunak ez.

Hau gainditzeko, beraz, oso garrantzitsua da ume txiki bat zaintzeko beharrezko gorpuz teknikak barneratzea, eta hori menperatzeko praktika eta denbora ezinbestekoak dira (Ranson, 2015). Kasu honetan, hain zuzen, eginbeharreko gauza praktikoak trebatuz (pardelak aldatu, arropa aukeratu eta antolatu, etab.) eta horren ardura nagusiki bere gain hartuz konfiantza bereganaintzearekin bezala igo egin zen. Oso garrantzitsua izan zen nire partehartzailearentzat hasieratik gure artean eginbeharrekoak banatzea. Ni edoskitzearen ardura hartu eta momentu horiek umearekin konektatzeko erabiltzen nituen bitartean, bere eginbeharra, eta ondorioz bere momentua, pardelak aldatzearekin eta arropa jarri eta antolatzearekin batera gertatzen zen. Egunean, esparru hori “berea” bezala sentitzeak, eta fisikoki bere gorpuz umearen beharrei egokitzen joateak, bere aitaren rolean konfiantza gehiago izatea ekarri zion, eta horrek, aldi berean, alderdi emozionalari aitea irekitzea ahalbidetu zion, fase liminala gaindituz. Puntu horretan edoskitzea ez zitzaion arazo bat bezala planteatzen, dagoeneko guraso sentitzen zelako bere eskubide propioagatik.

Fase hau klabea da gorpuztutako ezagutzari dagokionez, lehenengo uneetan umea apurtu daitekeen zerbait bezala tratatzeko joera sumatu nuen, baina praktikatzeko batera hasieran denbora eta zailtasun handia planteatzen duten ekintzak barneratzen hasiko dira, eta horrek naturaltasuna handitzearekin batera konfiantza ere emango dio aita berriari, tentsioa kenduz eta segurtasuna eta gozamina handituz.

3.3. Umearen lehengo hilabetea eta gero edo Barneratzea

Behin barneratzea gertatu denean, hasieran oso bortxatuak ematen zuten praktikak arraro izatetik guztiz naturalak izatera pasatzen dira. Mundua gure gorpuztutako esker edo bere bidez antzematen badugu, gorpuztutako ezinbestean eraldatu behar da, bestearen presentzia “haragizkoari” ohiatzeko. Barneratzea egon dela baieztatzeko grabatutako materiala ezinbestekoa izan da, egunerokotasunean oharkabea pasa daitekeen xehetasunak agerikoak egiten baitira bideo edizioak ematen digun denbora laburtzeko aukerarekin. Lehenengo egunetako materiala eta azken egunetako alderatzean aldaketa handia egon dela baieztatu daiteke. Bereziki esanguratsua da hasieran nola hartzen duen umea ikustea, asko pentsatuz, kontu haundiz, oso poliki eta artifizialtasun handiarekin, mugimendu horiek bere gorpuztutako izango ez balira bezala. Hiru hilabete eta gero prozesu guzti horiek automatikoak bilakatu ziren, zer egiten ari zen ez pentsatzearen punturaino.

Agerikoa da dagoeneko bere gorpuztutako ezagutza tazituan erantsi direla mugimendu horiek, Maussen (1991) ideiarekin jarraitzeagatik bere gorpuztutako tekniken katalogoa handitu egin da, eta horrek lasaitasuna eta erosotasuna ematen dio orain umearen presentzian, pentsatu beharreko gauzen artean ez baitago umea nola hartu edo pardela nola aldatu bezalako kezkarik.

4. Ondorioak

Proiektu honen hasiera puntua aita bilakatzean gizonezkoen eraldaketa fisikoa eta psikologikoa ulertzea zen. Bideo materialari esker eta behaketa intentsiboari esker baieztatu dezakegu eraldaketa horrek alde fisikoak badituela. Esan bezala, bideoa tresna ezin hobea da denboran zehar ezberdintasunak nabarmentzeko, eta trantsizio horren alderdi gorpuztaratuarekin batera, sentimenduak ere azaleratzeko

modu on bat izan daiteke. Kasu honetan, baieztatu daiteke aitek ere beraien gorputzetan eraldaketak jasaten dituztela, eta eraldaketa horien neurria, eta beraien segurtasuna rol berrian, umeen jaiotzetik (eta modu batean aurretik ere) daukaten presentziarekin zerikusi handia duela, eta, batez ere, zainketa praktikoan duten partehartzearen esperientziarekin.

Denbora eta espazio nahikoa emanez gero —umearekin bakarrik zaintzaile nagusi moduan ahal izanez gero—aita berriek esperientziatik ikasten dute, ezagutza horiek gorputzaratuz eta hasierako zaurgarritasun hori gaindituz, beraien rol berrian hazteko. Nire partehartzailearen kasuan 7 hilabetez umearekin egoteko aukera izateak bere konfiantza handitu zuen eta ondorioz, baita bere gozamina ere zaintzak egiterako orduan. Bere ustez gizonezko gehiagok hori bizitzeko aukera izango balute, eta jakingo balute zer galtzen ari diren, esperientzia hori eskuratzeko gehiago borrokatuko lukete. Aitatasun “berriak” edota “kontzienteak” deiturikoak aitatasunaren eredu tradizionala gainditzeko ari garela erakusten digu, baina horrek ere esan nahi du, aitei bere tokia bilatu eta onartu behar zaiela, haurdunalditik hasita, erditzerako orduan eta baita ume txikien zainketaarekin zerikusia duten esparru eta bizipenetan. Horrela, trantsizio hau igarotze erritu bat bezala ikusteak fase bakoitzaren beharrak ulertzen lagunduko digu, aiten eraldaketa eta behar fisiko eta psikologikoei garrantzia eta jarraipena ematen zaien bitartean, *barneratzearen* fasera iritsi arte. Aitatasunak badu genero banaketa tradizionalak desafiatzeko potentziala eta estatu Espainiarrean estreinatu berri den 16 asteko aitatasun baimenak horretarako bidea zabaltzen du, ikerketarako aukera paregabe bat eskaintzen digun aldi berean. Hala ere, garrantzitsua izango litzateke ez aztertzea bakarrik aitatasun baimenaren aste kopurua faktore bezala, baizik eta aste horiek hartzeko modua (amarekin batera edo ez, oporrak luzatzeko, etab.), horrek aiten inplikazio maila eta, beraz, baita beraien gorputzaratze prozesua ere baldintzatu ditzakeelako.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Proiektu honek leiho bat irekitzen du gorputza eta aitatasunarekin zerikusia duen gorputzaratutako ezagutzaren analisi bat egiteko. Zentzu horretan, kasu ikerketa gainditu eta partehartzaile gehiagorekin antzeko lana egitea izango litzateke hurrengo pausu logikoa. Dena den, hasieran planteatzen den bezala horrek etika arazo batzuk planteatuko litzuke, mota honetako ikerketa bat intrusiboegia izateko arriskua izango lukeelako. Dena den, garrantzitsua litzateke aitatasuna bizitzeko modu anitz egonda, familia mota ezberdinetan egitea datu hartzea: adopzio edota harrera familien aitekin, aita bakarreko familiarekin, bi aita dituzten familiarekin, haurdun egondako aita transexualen familiarekin, familia tradizionalagoak non aitak bakarrik lan egiten duen etxez kanpo, etab. Aita bilakatzean bizitako eraldaketa guzti horiekin, baina esperientzia bakoitza bakarra dela azpimarratuz, bizipen eta aldaketa orokor batzuk antzematea ahalbidetuko lukeen ikerketa batean gizon ezberdinei ahotsa emanez, betiere aitatasunaren garrantzia eta konplexitatea azaleratuz.

6. Erreferentziak

- Abu-Lughod, L. (1991). Writing against Culture. In R.G. Fox (Ed.), *Recapturing Anthropology: Working in the Present*. Santa Fe, USA: School of American Research Press. (pp. 137-162).
- Bar-On, I.K. & Scharf, M. (2016). The Reconstruction of Fatherhood Across Two Generations: From Experiences of Deficiency, Strictness, Precocious Maturity, and Distance to Indulgence, Permissiveness, and Intimacy. *Journal of Family Issues* 37(5), 645-670.
- Brandth, B. & Kvande, E. (1998). Masculinity and Child Care: The Reconstruction of Fathering. *The Sociological Review*, 46(2), 293-313.
- Brandth, B. & Kvande, E. (2014). Parental leave and classed fathering practices in Norway. In G.B. Eydal & T. Rostgaard (Eds.), *Fatherhood in the Nordic Welfare states*. Bristol, UK: Policy Press. (pp. 121-138).
- Brennan, A., Ayers, S., Ahmed, H. & Marshall-Lucette, S. (2007). A critical review of the Couvade Syndrome: the pregnant male. *Journal of Reproductive and Infant Psychology*, 25(3), 173-189.
- Butler, J. (1987). Variations on Sex and Gender: Beauvoir, Wittig, Foucault. In S. Benhabib & D. Cornell (Eds.), *Feminism as Critique: Essays on the Politics of Gender in Late Capitalist Societies*. Oxford, UK: Polity Press. (pp. 128-42)..
- Daly, K.J. (1993). Reshaping fatherhood: Finding the models. *Journal of Family Issues*, 14, 510-530.
- Deave, T. & Johnson, D. (2008). The transition to parenthood: What does it mean for fathers? *Journal of Advanced Nursing*, 63(6), 626-633.
- Doucet, A. (2004). “It's Almost Like I Have a Job, but I Don't Get Paid”: Fathers at Home Reconfiguring Work, Care, and Masculinity. *Fathering: A Journal of Theory, Research, and Practice about Men as Fathers*, 2(3), 277-303.
- Doucet, A. (2006). ‘Estrogen-Filled Worlds’: Fathers as Primary Caregivers and Embodiment. *The Sociological Review* 54(4), 696-71
- Doucet, A. (2009). Gender Equality and Gender Differences: Parenting, Habitus, and Embodiment. *Canadian Review of Sociology/Revue canadienne de sociologie*, 46(2), 103- 121.

- Draper, J. (2003). Blurring, moving and broken boundaries: men's encounters with the pregnant body. *Sociology of Health & Illness*, 25(7), 743-767.
- Eerola, P. (2014). Nurturing, breadwinning, and upbringing: Paternal responsibilities by Finnish men in early fatherhood. *Community, Work and Family*, 17(3), 308-324.
- Esteban, M.L. (2004). Antropología encarnada. Antropología desde una misma. *Papeles del CEIC*, 12, 1-19.
- Fägerskiöld, A. (2008). A change in life as experienced by first-time fathers. *Scandinavian Journal of Caring Sciences*, 22(1), 64-71.
- Halle, C., Dowd, T., Fowler, C., Rissel, K., Hennessy, K., MacNevin, R., Nelson MA (2008). Supporting fathers in the transition to parenthood. *Contemporary Nurse*, 31(1), 57-70.
- Hewlett, B.S. (1991). *Intimate Fathers: The Nature and Context of Aka Pygmy Paternal-Infant Care*. Ann Arbor, USA: University of Michigan Press.
- Imaz, E. (2007). *Mujeres gestantes, madres en gestación. Representaciones, modelos y experiencias en el tránsito a la maternidad de las mujeres vascas contemporáneas*. Leioa: Servicio de publicaciones de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU).
- Johansson, T. & Klinth, R. (2008). Caring Fathers. The Ideology of Gender Equality and Masculine Positions. *Men and Masculinities*, 11(1), 42-62.
- Lafragua Salazar, I. (2018). *A Journey towards Fatherhood: The importance of embodying a new role*. Tesis de máster, UiT The Arctic University of Norway.
- Magaraggia, S. (2013). Tensions between fatherhood and the social construction of masculinity in Italy. *Current Sociology* 61(1), 76-92.
- Malinowski, B. (1975). *La vida sexual de los salvajes del noroeste de Melanesia*. Madrid: Ed. Morata.
- Mauss, M. (1991). Técnicas y movimientos corporales. En M. Mauss, *Sociología y Antropología*. Madrid: Tecnos.
- MacDougall, D. (1998). *Transcultural Cinema*. Princeton, USA: Princeton University Press.
- Mead, M. (1994). *Masculino y femenino*. Madrid: Minerva Ediciones.
- Meil, R., Rogero-García, J. & Romero-Balsas, P. (2017). *Los permisos parentales como instrumentos para la igualdad de género*. Barcelona, Spain: Observatorio Social La Caixa.
- Miller, T. (2010). *Making Sense of Fatherhood: Gender, Caring and Work*. Cambridge, UK: Cambridge University Press.
- Naz, G. (2012). Child-care in Norway: Use of parental leave by fathers. *Bergen Working Papers in Economics*, 12, 1-33.
- Okely, J. (1992). Anthropology and autobiography: Participatory experience and embodied knowledge. In J. Okely & H. Callaway (Eds.), *Anthropology & Autobiography*. London, UK: Routledge. (pp. 1-28).
- Pink, S. (2007). *Doing Visual Ethnography*. London, UK: Sage.
- Rochlen, A., McKelley, R. & Whittaker, T. (2010). Stay-at-Home Fathers' Reasons for Entering the Role and Stigma Experiences: A Preliminary Report. *Psychology of Men & Masculinity*, 11(4), 279-285.
- Seremetakis, C.N. (1991). *The last word: Women, death and divination in inner Mani*. Chicago, USA: The University of Chicago Press.
- Shapiro, J.L. (1987). The expectant father: He's caught in a double bind. His presence is requested but his feelings—fear, anger, uncertainty—are strictly taboo. *Psychology Today*, 21, 36-40.
- Silva, E.B. (2005). Gender, home and family in cultural capital theory. *The British Journal of Sociology*, 56(1), 83-103.
- Thomas, C. (1993). De-Constructing Concepts of Care. *Sociology*, 27(4), 649-669.
- Del Valle, T. (coord.) (2002). *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*. Madrid: Narcea.
- Van Gennep, A. (1960). *The Rites of Passage* [English edition]. Hove, UK: Psychology Press.
- Wall, G. & Arnold, S. (2007). How Involved Is Involved Fathering? An Exploration of the Contemporary Culture of Fatherhood. *Gender & Society* 21(4), 508-527

7. Eskerrak eta oharrak

Nire egungo ikerketa UPV/EHUn ikertzaileak prestatzeko kontratazio programari esker (PIF 19/130) dago finantzatua.

Artikulo hau The Arctic University of Norway UiTn egindako master tesian oinarrituta dago. Aipatutako tesia ondorengo filmaz ere osatuta dago:

A fatherlike feeling - <https://www.youtube.com/watch?v=GMuAHNpIF14>

Milesker Miren Elixabete Imaz Martinez bere aportazioengatik, eta baita ikerketan parte hartu duten aitei beraien denbora eta laguntzagatik.